

2016KO URRIAREN 18AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 18 DE OCTUBRE DE 2016
--	---

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

<u>BERTARATUTAKO BOKALAK</u>	<u>VOCALES ASISTENTES</u>
------------------------------	---------------------------

ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn.
AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
AMORRORTU MARTINEZ, Iñaki jn.
ARRAIZA ARAMENDIA, Maite and.
ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
CORIA YANGUAS, Elena and.
COS YAÑEZ, Susana de and.
EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
GUIJARRUBIA GARCIA, Nerea and. (en sustitución de don Oier Iturralde Fernández)
IBABE BOTELLA, Miguel jn.
ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
LANDA ARTECHE, José Luis jn.
PRADA OLLETA, Enrique jn.
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
SAINZ ROBLES, Santiago
URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

<u>IDAZKARIA</u>	<u>SECRETARIA ACCIDENTAL</u>
------------------	------------------------------

ALONSO BASALDUA, Ainhoa

<u>GONBIDATUTAKO ARDURADUNAK</u>	<u>RESPONSABLES INVITADAS/OS</u>
----------------------------------	----------------------------------

ZABALA LASA, Gorka jn.

Getxo, bi mila eta hamaseiko urriaren 18ko 18:45etan, Udaltzaingoako Bilkura Gelan egindako ez ohiko bilkuran, Zuzendaritza Batzordea bildu zen eta goian zerrendatu diren pertsonak bertaratu ziren.

Lehendakariak adierazi du bilera hasi baino lehen jakinarazi nahi duela gai-zerrendan honako puntu hau agertzen dela: "Getxo Kirolak TEAren zerbitzuak emateko eta kirol eta kultur jarduerak egiteko Tasa Erregulatzan duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa Getxoko Udaleko Ogasun Batzordera eramateko Erabaki-proposamena". Talde politikoren batek hala eskatuta, puntu hau gai-zerrendatik kendu egingo duela esan du, proposamena aztertzeko denbora gehiago behar izateagatik. Beraz, gaia mahai gainean utziko dute.

60.- 2016ko EKAINAREN 21eko OHIKO OSOSKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

En Getxo, a las 18:45 horas del día 18 de octubre de dos mil dieciseis se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Reuniones de la Policía Municipal, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

Toma la palabra el presidente y manifiesta que antes de comenzar la reunión, informa que en el orden del día figura el punto "Propuesta de Acuerdo para elevar a la Comisión de Hacienda del Ayuntamiento de Getxo la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa para la prestación de servicios y realización de actividades deportivas y culturales del O.A.L. "Getxo Kirolak", y señala que a petición de algún grupo político que lo ha solicitado, este punto lo va a retirar del orden del día, debido a que necesitan más tiempo para estudiar la propuesta, por lo cual se deja encima de la mesa.

60.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 21/06/2016

Aho batez onartu dute 2016/06/21eko akta.

Bestalde, Lehendakariak adierazi du iraileko akta ez dutela sartu Kudeatzailea oporretan dagoelako eta idazteko dagoelako. Horrela, gainbegiratzen ez duen arte, ez da oniritzirik emango.

Bilera honetan idazkari-lanetan Ainhoa Alonso arituko da, Juan Ig. Astorkitzaren lekuan.

INFORMAZIO OROKORRA

Lehendakariak jakinarazi du atzo arkitekto bat hasi zela lanean 3 urteko denboraldirako. 264/2016 ebazpenean egiazta ditzakete zer-nolako lanak egingo dituen, horietako bakoitza zehaztuta agertzen baita. Arkitektoaren profila Getxoko Udaleko arkitekto baten berdín-berdina da, eta, ikus daitekeenez, ez du antzeko posturik Getxo Kirolakeko LPZn. Gainera, Getxoko Udaleko arkitektoen poltsako langile bat kontratatu da.

Rodriguez jaunak zer-nolako profila duen galdetu du.

Lehendakariak erantzun dio poltsaren profila 3a dela.

Andrade jaunak galdetu du zer-nolako lanetan arituko den, eta Lehendakariak erantzun dio pilotalekuen eraikin osoaren egitura eta funtzionamendua aztertuko dituela, eraikinarekin zer egin jakiteko proposamena aurkez dezan.

Biomasaren eraikina ere hor dago, galdara bat instalatzeko (lanak erdi hasita daude).

Halaber, udal kirol eremuaren aurreproiektua eta proiektua egin beharko ditu. Futboleko belar-zelaia izatea nahi dugu, udal-kirol eremu bilakatzeko (egun, hor jokatzén du Getxo Kirol Klubak), eta behar adinako harmaila izatea nahi dugu, instalazio egoki eta guzti. Klub etxea ere berreskuratu nahi dugu, ia 100 urtekoa. Edonola ere, kontraturiko pertsonak egin beharreko obrak ebazpenean zehazten dira.

Era berean, garagardotegiko gunea birgaitu behar da.

Lanaldia %75ekoa izango da, kirol parke publikoa garatzeko parte-hartze plana ere egongo baita. Gaur egun, ez dakigu parte-hartze horretatik zer-nolako lanak atera daitezkeen; esate baterako, kanpoko padel pistak estaltzea (kasu honetan obra honek ere bat egiten du horrekin). Lanaldian gehituko litzateke zona horretan ateratako edozein obra, izan bat, bi, hiru edo bakar bat ere ez.

Andrade jaunak adierazi du udal futbol-zelaiaren parkeari dagokionean, harmaila egitea esan nahi duten, eta Arenas kategoriaz igotzen bada, ea jokaterik izango lukeen...

Lehendakariak erantzun dio Arenas kategoriaz igotzen bada edo Arenasek belar naturalean jokatzea nahi badu, Udalaren kirol-eremuan egin dezala. Getxo Errugbiak leku horretan final bat jokatu nahi badu, ia 4.000 eserlekuko zelai bat izatea interesgarria litzatekeela Getxo bezalako

Se aprueba, por unanimidad de las personas presentes, el acta del día 21/06/2016.

Por otra parte, el Presidente informa que el acta correspondiente al mes de septiembre no se ha incluido porque el Gerente está de vacaciones y está pendiente de redactarla y hasta que no la supervise no se dará el visto bueno.

Para la presente reunión ejerce de secretaria Ainhoa Alonso en sustitución de Juan Ig. Astorkitza.

INFORMACION GENERAL

El presidente informa que se ha incorporado en el día de ayer una arquitecta para un periodo de 3 años, pudiendo comprobar en la resolución 264/2016 los trabajos a los que se va a dedicar específicamente pues aparecen determinados cada uno de ellos; sigue informando que el perfil es idéntico al de un arquitecto del Ayuntamiento de Getxo y como observareis no tiene ningún puesto similar en la RPT de Getxo Kirolak y se ha contratado a una persona de la bolsa de arquitectos del Ayuntamiento de Getxo.

El Sr. Rodriguez pregunta por el perfil.

El Presidente contesta que el perfil de la bolsa es el 3.

El Sr. Andrade pregunta ¿a qué se va a dedicar?, a lo que responde el Presidente que al estudio estructural y funcional de todo el edificio de frontones, al objeto de que presente una propuesta para conocer qué hacer con el edificio.

Luego está el edificio de Biomasa para una instalación de caldera que está a medio empezar.

También, el anteproyecto y proyecto del campo deportivo municipal que queremos sea el campo de fútbol de hierba, el cual se convierta en campo deportivo municipal (donde juega actualmente el Club Deportivo Getxo) y que disponga de una grada decente, con instalaciones adecuadas, recuperar la casa club que tiene casi 100 años; no obstante, en la resolución vienen detalladas las obras en las que va a prestar servicio la persona contratada.

Igualmente, la rehabilitación del espacio de la cervecera.

La jornada está dedicada al 75% dado que existirá un plan de participación para el desarrollo del parque público deportivo y actualmente se desconocen las obras que pueden salir vinculadas de esa participación, por ejemplo, sí saliera que se cubran las pistas de padel exteriores, que en ese caso esta obra también se sume a ella y se amplíe a su jornada cualquier obra que salga de la zona, una, dos, tres o ninguna.

El Sr. Andrade indica si eso del parque del campo fútbol municipal se refiere a hacer una grada y que sí el Arenas sube de categoría podría jugar

El Presidente contesta que sí el Arenas sube de categoría o sí el Arenas quiere jugar en hierba natural que sea el campo deportivo municipal. Que sí el Getxo Rugby quiere jugar una final ahí, que tengamos un campo con casi 4.000 localidades que sería interesante

herri batentzat, irisgarritasunaren inguruko araudia betetzen duen harmaila eta guzti, egun ez baitugu araudia betetzen.

Prada jaunak galdetu du nola geratuko litzatekeen Gobela ibaiarekin, eta Lehendakariak erantzun dio harmaila egongo dela egun klub etxearen harmaila dagoen lekuan, eta gainerako zona libre geratuko litzatekeela, ibaiak eraikitzen uzten ez digulako ibaiertzetik 25 metroko distantzian. Horrela, bi hondo oso ortopediko geratuko lirateke, nolabait esateko; beraz, proposatzen da azpiko zona guztia berde geratzea, nahiz eta horiek kirol-arloko zinegotziaren gogoetak izan. Ez dago jakiterik gero zer aterako den, futbol klubek edo beste kirol-elkarteek beren proposamenak aurkezten dituztenean, haiek ere beren iritziak izango dituzte-eta.

Halaber, jakinarazi du bi erretiratze partzial egin direla kontserbazio-arloan, eta beste bi pertsona sartu direla. Horien inguruko xehetasunak 281 eta 282 ebazpenetan kontsulta daitezke.

Modu berean, adierazi du laster bidaliko dutela aurtengo udan jarritako lauzen inguruan GUK taldeak eskatutako txostena. Une honetan, txosten hauek dituzte: SOSen txostena, Getxo Kirolakeko kirol-arduraduna den Gorka Zabalaren txostena eta Getxo Kirolakeko erosketa-kontratazioko arduraduna den Ainhoa Alonsoren txostena. Itzuli eta gero, alderdi guztietara bidaliko dira.

Lehendakariak adierazi du txostenak irakurri ditzakeela aktan jaso daitezen, baina oso luzeak direnez, bidaltzea hobe izango dela uste du.

GALDE-ESKEAK

Lehendakariak esan du gaurko egunez GUK taldearen galdera batzuk jaso dituztela, eta jarraian irakurri egin ditu:

- 1.- Energia-eraginkortasunaren inguruko emaitzak-aurrezpenak, 2014an GIROA enpresa kontratatuta.
- 2.- Zergatik ez zegoen daturik Andra Maria Polikiroldegiko kontsumo energetikoen inguruan kontratazio-egunera bitarte?
- 3.- Getxo Kirolakeko instalazioei dagokienez, egun dauden aseguruiei buruzko informazioa.
- 4.- Aseguruak direla-eta, eta 2008an uholdeen ondoren instalazioak berreskuratzeko egin beharreko gastua kontuan hartuta, zer-nolako asegurua zegoen indarrean uholdeen aurretik? Instalazioak eta makineria behar bezala estaltzen zituen?

Galdera horiek guztiak gaur sartu direnez eta erantzuna prestatzeko betarik izan ez denez, hurrengo Zuzendaritza Batzordean emango da erantzuna.

Prada jaunak adierazi du mantentzearen inguruan emandako informazioa, zehazki, Giroaren kontratazioarena, GUK taldearentzat arrazoizkoa dela Getxo Kirolakek dituen bezalako instalazioetan era horretako enpresa bat izatea energiaren mantentze-lanaz

para un localidad como es Getxo, con unas gradas adecuadas que cumpla la normativa de accesibilidad, dado que actualmente no cumplimos.

El Sr. Prada pregunta como quedaría con el río Gobela, contestando el Presidente que la grada iría donde está actualmente la grada de la casa club y el resto de la zona quedaria liberada porque evidentemente el río no nos deja construir en los 25 metros desde el margen del río, entonces dejaria dos fondos muy ortopédicos por asi decirlo, y la propuesta es que toda la zona del fondo quede verde también, aunque son elocubraciones del concejal de deportes que a saber lo que saldrá despues cuando presenten sus propuestas los clubes de futbol u otras asociaciones deportivas que tendrán su opinión.

También comunica que se han realizado dos jubilaciones parciales en el área de conservación y se han incorporado dos personas pudiendo consultar las resolucion 281 y 282.

Igualmente, informa que en breve se enviará el informe que solicitó GUK sobre las losetas que se han colocado este verano. Se dispone de un informe de los SOS, un informe del responsable deportivo de Getxo Kirolak Gorka Zabala y un informe de la responsable de compras-contratación de Getxo Kirolak Ainhoa Alonso, procediendo a traducirlos y posteriormente enviarlos a todos los partidos.

El Presidente señala que podría leer los informes al objeto de que consten en acta, pero dado que los mismos son extensos, considera que sería mejor proceder a su envío.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Continúa el Presidente diciendo que en el día de hoy han entrado unas preguntas de GUK, procediendo a leerlas a continuación:

- 1.- Información sobre los resultados-ahorro en relación a la eficiencia energética, conforme a la contratación de la empresa GIROA en el 2014 para esta cuestion.
- 2.- ¿Cómo es posible que no hubiera datos sobre consumos energéticos en el Polideportivo Andra Maria hasta la fecha de esa contratación?.
- 3.- Información sobre los seguros existentes en la actualidad en Getxo Kirolak en relación a sus instalaciones.
- 4.- En relación a los seguros, y dado el gasto que debió realizarse en 2008 tras las inundaciones para recuperar las instalaciones, ¿qué tipo de seguro estaba vigente antes de las inundaciones? ¿cubría adecuadamente instalaciones y maquinaria?

Dado que dichas preguntas han entrado en el día de hoy y no ha dado tiempo a preparar la contestación, en el próximo Consejo Rector serán respondidas.

El Sr. Prada manifiesta que sobre la información trasladada del tema de mantenimiento y en concreto, la contratación con Giroa, comenta que desde GUK entienden que es razonable que unas instalaciones como las que tiene Getxo Kirolak cuenten con una

arduratzeko.

Hala ere, harritu egiten dira Andra Mariko Polikiroldegiko kontsumoen eta gastu energetikoen inguruan 2014an hauek iritsi bitarte daturik ez izateaz; hots, kontsumo energetikoren datuak eta ordaindutako fakturak.

Eta aseguruari dagokienez, 2008a eta gero, Udalak kontuan hartzeko moduko gastua ordaindu behar izan zuen; beraz, argi ez dute garai hartako aseguruak egoeretara egokitzen ziren.

Lehendakariak erantzun dio datuak eskuartean dituenan erantzungo diola.

Prada jaunak esan du aurreko Zuzendaritza Batzordean, plangintzaren eta instalazioen aldatzearen inguruan, Getxo Kirolakenean ideia horien gaineko akordioa bidali zirela; hots, futbol-zelaia, harmailak, e.a. Eta berriro aurreko Zuzendaritza Batzordean aipatutakoa adierazi nahi du. Getxo Kirolakenean Kirol arduradunari galdetu zion zertan zen pilotalekuen behin-behineko erabilera, eta esan zioten behin-behinekoa zela. Horrela, Getxo Kirolakenean Estatutuen 8. artikulura dator berriro ere: ez daki nola definitu "Zuzendaritza Batzordeko lehendakari honek proposatuta, haietan eman beharreko instalazioen eta zerbitzuen plangintza orokorra". GUK taldeak informazioa errazago eskuratzeko aukera izatea nahi luke eta unean bertan lantzea eta ez ia itxita dagoenean bidaltzea. Besterik gabe, ohar hori egin nahi du, informazioa beste era batera eskuratu nahi luketela.

Lehendakariak erantzun du klubaren bati guneren bat uzten zaionean, horren berri ematen ahaleginduko dela edota Zuzendaritza Batzordeak onartu arte itxaron dezaketela.

Prada jaunak esan du ez dela ari hori esaten. Lehendakariak esan dio bada azaltzeko zer esaten ari den.

Prada jaunak esan du esan duela informazio hori modu egokiagoan eramateko Zuzendaritza Batzordera.

Lehendakariak adierazi du kontuan izango duela eta informazioa ematen ahaleginduko dela. Egia da batzuetan gune batzuk uzten direla eta ez duela garrantzirik daukatenik ematen. Orduan, jakina, ez dute eratu gabeko ideiarik ekarriko; proposamenak ekarri behar dira. Berak ez du proposamenik egiten; teknikarien taldea egongo da horretarako.

Prada jaunak esan du eta Zuzendaritza Batzordera eramango direla, eskumeneko organoa izateagatik.

Lehendakariak erantzun dio zalantzarik ez izateko.

Prada jaunak adierazi du kontua dela Zuzendaritza Batzorde bat dagoela, eta ez dutela behar bezala informazioa ematen, Getxo Kirolakenean beraren kudeaketan behar bezala egiten ari ez direlako, denboran eta forman.

Lehendakariak adierazi du kontuan hartuko duela, eta hobetzen saiatuko direla.

empresa de este tipo para llevar el mantenimiento de energía.

Sí es verdad que cuestiones como la falta de datos de consumos y gastos energéticos en el Polideportivo Andra Mari hasta la fecha de su llegada en 2014 les llama la atención que no se tengan datos de consumo energético y facturas pagadas de ese polideportivo.

Y en relación a los seguros, también a la pregunta esta práctica obedece a qué tras 2008 aquello supuso un gasto considerable para el Ayuntamiento y entonces tienen más que serias dudas razonables de que los seguros de aquel momento estaban adecuados a las circunstancias.

El Presidente responde que le contestará cuando tenga los datos.

El Sr. Prada dice que en el anterior Consejo Rector, en relación a la planificación y cambio de instalaciones bueno nos remite al acuerdo que existe de estas ideas en Getxo Kirolak del campo fútbol, gradas, etc., y me remito al apunte hecho en la anterior Consejo Rector ya que hice un comentario al Responsable de Deportes de Getxo Kirolak sobre el uso provisional de los frontones y se comentó que era provisional y vuelvo a ese art. 8 de los Estatutos de Getxo Kirolak, que no sé como definir la "planificación general de instalaciones y servicios a prestar en ellas a propuesta del presidente de este Consejo Rector", y desde GUK nos gustaría tener más facilidad para acceder a la información y estar más presente en el momento y no remitirnos cuando prácticamente está cerrado. Sin más, esa observación quiero hacer, que nos gustaría contar con la información de una forma más adecuada.

El Presidente responde que intentará informar cuando se ceda algún espacio a algún club o que también podemos esperar a que el consejo rector lo apruebe.

El Sr. Prada dice: qué no está diciendo eso.

El Presidente dice: pues explicame qué estas diciendo.

El Sr. Prada dice: estoy diciendo que esa información se traslade a este consejo rector de una forma más adecuada.

El Presidente manifiesta que toma nota e intentará informar; es verdad que a veces hay cesiones de espacios que no parecen relevantes y evidentemente no va a traer ideas sin plasmar, hay que traer propuestas. Que él no elabora la propuesta y habrá un equipo de técnicos/as que elaborará la misma.

El Sr. Prada dice: y se elevará al consejo rector, que es el órgano competente.

El Presidente dice: no tengáis ninguna duda.

El Sr. Prada manifiesta que la cuestión es qué hay un consejo rector y no se está llevando la información debidamente porque desde la propia gestión de Getxo Kirolak no se está haciendo debidamente, en tiempo y forma.

El Presidente señala que se toma nota y se procurará mejorar.

EH BILDUREN GALDERA

Patinaje

Lehendakariak esan du patinajearen inguruan EH Bilduren galdera bat duela:

1.- Zeintzuk dira instalazioak uzteko erabiltzen diren irizpideak eta zeintzuk patinaje artistikoko ikastaroak egiteko ordutegiak?

Gorka Zabala jaunak adierazi du erabiltzen diren irizpideak honako hauek direla: kirola egiten duten haurren kopurua, kasu honetan, patinaje modalitatekoa. Gira Getxo Elkarte duela bi urte hasi zen, eta iaz 30/40 ume izan zituen. Beharbada egokienak ez diren gunean eman ziren, eta 40 izatetik 80 izatera pasa dira. Urriari jakinarazi ziguten, ia espazioen lagapena onartuta zegoenean, leku gehiago behar zutela, eta ia lekurik ez dagoen lekuetan ere bila ibili gara; hots, ikastetxeetan. Gobelako eta Fadurako haraneko orduak ere eskaini dizkiegu, libre egoteagatik. Orain, ez dugu beste aukerarik, eta pilotalekua ere eskaini zaie. Kluba izugarri hazi da urte eta erdiko denboraldian, eta era batera edo bestera irteera eman behar diogu.

Lehendakariak adierazi du Getxo Kirolak aurreproiektuan Gobelako sky zorua aldatzea proposatzen dutela; hau da, zura jartzea. Izan ere, sky-an ezin da patinatu, eta beste kiroletan ere lesioak eragiten ditu. Modu horretan, zura jartzeko proposamena egin dugu patinatzeko 4 edo 6 ordu izan ditzaten, orain eskatzen ari diren moduan.

Zabala jaunak esan du zura jartzeko eskatzen dutela ez delako on line patinajea, zoladura berezia eskatzen duen patinaje artistikoa baizik. Gurrpilek "x" mugimendua eskatzen dute, eta ezin dira edozein lekutan entrenatu. Horrela, instalazio egokiak behar dituzte, eta hori ez da erraza egun instalazioak nola dauden ikusita.

Beste klub bat ere badago; han, 180 lagun dira, eta beren espazioa badute. Denei eman behar zaie irtenbidea.

Duela hiru egun, ordu batzuk eskaini zaizkie, eta ahal duten neurrian erabiltzea espero dugu. Jakina, ez dira onenak, ez dira arratsalde (asteartea eta osteguna), baina ordu interesgarriak dira.

Kirol udalekuak

Lehendakariak EH BILDUREN beste galdera bat irakurri du:

2.- Azken Zuzendaritza Batzordean eskatu genuen udako kirol udalekuen kontratuak ez luzatzea eta, aldi berean, esleipen berri bati hasiera ematea. Aztertzeotan geratu ziren, eta orain jakin nahiko nuke aztertu duten eta zer erabaki hartu duten.

Lehendakariak adierazi du teknikari arduradunaren txostenik ez dutela, eta Lehendakariaren proposamena luzatzea izango dela.

PREGUNTA EH BILDU

Patinaje

El Presidente expone que tiene una pregunta de EH Bildu sobre patinaje:

1.- ¿Queremos saber cuáles son los criterios que se utilizan para las cesiones de las instalaciones y horarios para los cursos de patinaje artístico?

Toma la palabra el Sr. Gorka Zabala e indica que los criterios que se utilizan son el número de niños/as que practican el deporte, en este caso la modalidad de patinaje, y sí que es verdad que Gira Getxo Elkarte que acaba de comenzar hace dos años, el pasado año tuvo 30/40 niñas, se facilitaron una serie de espacios que seguramente no son los más adecuados, y de 40 han pasado a 80, y nos notifican en octubre aproximadamente cuando estaba la cesión de espacios aprobada que necesitan mas espacio y hemos buscado donde casi no hay, que es en los centros escolares y facilitarles horas valle del polideportivo Gobela y Fadura que están libres; ahora mismo no tenemos más salida para darles y el frontón también se les ha ofertado. Es un club que ha crecido en año y medio una barbaridad y tenemos que darles salida como sea.

El Presidente manifiesta que en el ante-proyecto de Getxo Kirolak proponemos el cambio del firme de Gobela de sky que tiene ahora a madera, porque en sky no se puede patinar aparte que genera lesiones en otros deportes y hemos propuesto cambiar a madera para que el patinaje pueda tener 4 o 6 horas que es lo que están demandando ahora.

El Sr. Zabala informa que demandan madera porque no es un patinaje on line, es un patinaje artístico que necesita un pavimento especial por que las ruedas necesitan un deslizamiento "x" y no pueden entrenar en cualquier sitio, necesitando para ello unas instalaciones adecuadas que no es fácil, tal y como tenemos las instalaciones.

Tambien existe otro club que son 180 que también tiene su espacio y hay que dar salida a todos.

Se les ha ofertado una serie horas hace tres dias y esperamos que dentro de lo que puedan las utilicen, no son las mejores, no son a la tarde (martes y jueves), pero son horas interesantes.

Colonias Deportivas de Verano

El Presidente da lectura a otra pregunta de EH BILDU que dice así:

2.- En el último Consejo Rector solicitamos que no se prorrogaran los contratos de las colonias deportivas de verano y que se iniciará a su vez, una nueva adjudicación, se nos contestó que la propuesta se estudiara y me gustaría saber si eso ha sido así y cual ha sido la decisión que se ha tomado al respecto.

El Presidente manifiesta que a falta del informe escrito de la técnica responsable la propuesta del presidente en principio, va a ser no prorrogar.

Idatzitako galdera gehiago ez daudenez eta aurreko aktan erantzuteko geratutako gai batzuk daudenez, akta hori ixita dagoenean erantzungo dituzte.

Era berean, GUK taldeak egindako galdera batzuk erantzunda daude. Zuzendaritza Batzordeko norbaitek erantzun horiek jakin nahi baditu, aurreko aktaren inguruan egindako galdera horien erantzunak bidal ditzazkegu. Akta amaituta dagoenean, erantzungo ditugu.

Rodriguez jaunak adierazi du belar artifizialeko areto-futboleko zelaian, padeleko estali gabeko pisten ondoan dagoenean, belar artifiziala egoera oso txarrean dagoela. Zenbait zulo daude, eta haietan lesioren bat edo orkatilako okerren bat egin daiteke. Beharbada, obrak egindakoa egoera aldatuko da, baina bitartean, zulo horiek estaltzea komeni da.

Lehendakariak erantzun du egun zona horrek padel-gunerako sarrera bakarra duela. Egia esan, estali gabeko basket pistak eta areto-futboleko zelaia ez dira asko erabiltzen, sarrera eroso ez izateagatik. Sarrera soilik zona horretara sartzeko bakarrik dago egina. Pilotalekuen aldetik sartzen zarenean, esaterako, instalazioan zehar banatzeko aukera duzu, eta hemendik soilik futboleko jokatzera joan behar da. Jende asko joaten ez bada ere, zulo horiek begiratuko ditugu; gainera, belar artifizialaren zatiak baditugu eta konponduko ditugu. Zona hori guztia parte-hartze prozesuan landuko da, eta espazio berriak berriro antolatuko dira; beraz, ikusi egin behar zer ateratzen den eta zer proposatzen den.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, akta honen goiburuan adierazitako eguneko 19:05ean amaitu da bilkura.

Lehendakaria / El Presidente

Dado que no tiene más preguntas escritas y como hay algunas cuestiones pendientes de responder del acta anterior, en cuando tengamos dicha acta cerrada las responderemos.

Asimismo, hay algunas preguntas que hizo GUK que se les ha respondido, y si alguien del consejo rector quiere conocer las respuestas le podemos enviar las respuestas referente a la batería de preguntas que hizo vinculadas al acta anterior y en cuanto esté el acta finalizada la responderemos.

El Sr. Rodriguez señala que el campo de futbito de hierba artificial que está al lado de las pistas descubiertas de padel tiene la hierba artificial muy mal y hay algunos agujeros que pueden producir lesiones y alguna avería de tobillo e igual con las obras se cambia eso y entre tanto, igual hay que tapar esos agujeros.

El Presidente responde que actualmente esa zona tiene el acceso único hacía la zona de padel. La verdad es que no están siendo muy utilizadas ni las pistas basket descubiertas ni el campo de futbito por que no está comodo el acceso, el acceso solo está pensado para acceder a esa zona. No es como cuando entras por la zona de frontones que te distribuyes por la instalación hay que ir específicamente a jugar al futbol, la verdad que no está yendo mucho la gente pero vamos a mirar ese agujero, como disponemos de hierba artificial de recortes lo arreglamos, como toda esa zona va a estar sometida al proceso de participación y habrá una reorganización nueva de esos espacios, veremos que sale de ahí y que se propone.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:05 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Idazkaria / La Secretaria